

"Euskal-Irrati Telebista" Herri-Erakundea sortzeko Maiatzaren 20ko 5/1982 LEGEA.

ATARIKOA

Euskal Herriko Autonomia-Elkartea, bere Autonomia-Estatutoaren 19garren Atalak dionaren arauera, irrati eta telebistari buruzkoak 1980garreneko Urtarrilaren 10eko 4/80 Legez onartutako oinarritzko jaurpideak osatuz Eusko Legebiltzarraren Lege baten bidez araupetzeko gaitasunaren jabe da.

Agintepide hori erabiliz, eta funtsezko herri zerbitzu deneko irizpidea aitortuz, Lege honen gai diren gizarte-adierazpideak herritar euskaldunak argipide eta politikan eskuhartzeko lehen-lehen mailako bide direnez erutzen dira, eta bai hezkuntzarekiko eta euskal kulturaren suztapen eta zabalkundearekiko gure erapidetzaren oinarritzko lankidetasun-tresna direnez ere, euskeraren suztapena eta sabalkundea bereziki kontutan izanik eta, hori guzti hori, Autonomia Elkarte hone-tako herritarren eskubide eta iareipideak behar bezala egiteratzeko eustazpi eta oinarri.

Labur-labur esandako oinarri-irizpide hoietatik abiatuta, Lege honek, orotariko oinarritzko iriz-pideei men egitea ezezik, erantzun-eskubidea araupetzea ere egiten du, lehen aipatu ditugun oinarritzko jaurpide hoiek elkar-egokitasunez osatu eta, batean esanda, horretarako egoki diren lege-bideez baliatuz Legearen xede diren helburuei egokitutako egitura bat ezarriz.

LEHENENGO ATALBURUA

"EUSKAL IRRATI-TELEBISTA" HERRI-ERAKUNDEAREN ZER DENA

1. Atala

1.– Lege honen gai diren irrati-telebistazko zerbitzuen jabetzadun denez Autonomia-Elkarteari dagozkion egitekoak, "Euskal Irrati-Telebista" Herri-Erakundearen bidez egiteratuko dira.

2.– "Euskal Irrati-Telebista" Herri-Erakundea berenezko lege-nortasunaren jabe da, lege hone-tan eta hau osabideratu dezaten agintarauetango agintzak ditu jaurpide, Autonomia-Elkarteari erresumaren jabetzapeko telebista-irrapide baten artezko eraentza eman diezaion Legeak bakoit-zean agindu dezanaren eta uhin-sarritasunak eta irrada-indarrak izendatzeari darizkion eginbehar eta eskubideen kaltetan gabe.

3.– Besteekingo lege-alorreko harremanetan, ondareez jabetzeko eta akurapenak egi-teko Merkataritza eta Herri-alorreko Legeen menpe egongo da, Lege honetan oharmandako salbu-espenez besterik gabe eta, nolana ere, egintza bereizgarriei eta Itune-bidezko eta/edo Itune-bidezko beste erantzukizunekiko jaurpideei buruzkoetan inolako salbuespenik ez dagoela.

BIGARREN ATALBURUA

OROTARIKO OINARRI-ARAUAK ETA ERABILTZE-EREMUA

2garren Atala

Autonomia-Elkarteko Herri-Agintariak eta Herri-Erakundearen ihardutze-sailek adieraz-pide-askatasuna eta argipideak hartzeko eta emateko eskubidea babestuko dituzte adierazpideek bere egitekoa demokraziaren arauzko Gizarte batek eskatzen duenez egin ahal dezaten.

3garren Atala

Autonomia-Elkartearen jabetzapeko gizarte adierazpideen ihardunak honako oinarri-irizpide hauek izango ditu:

- a) Berriemanketan gauzak direneantxe ikustea, egiatasuna eta alderdikeriari eza.
- b) Berriemanketa eta iritziaren arteko zehazketa eta bereizketa, azken honek adierazten dutenek nor diren hertsiki eskatuz. Merkataritza-berriemanketak erabilkera zehatz eta berezi bera eskatuko du hertsiki.
- c) Berdintasun-sortarauarekiko, politika, erlijio, gizarte, kultura eta linguistika-aniztasunarekiko begirunea.
- d) Orotariko interesaren alde, Autonomia-Estatutoan eta Konstituzioan onartutako elkar-bizitzaren herri-balioen aldezen eta suztaketa.
- e) Konstituzioak eta Autonomia-Estatutoak onartzen dituen eskubideekiko begirunea.
- f) Pertsonaren ohorearekiko, izen onarekiko begirunea eta, bereziki, urkotasun eta berarizko irudirako eskubidearekikoa.
- g) Gazteriaren eta haurtzaroaren babesa.
- h) Kulturaren eta euskeraren suztapena, euskera erabiltzearen xedetarako, oinarrizko egitarau sortarauak ezarriz, orotariko eskeintza mailan Elkarte Autonomiadunean euskeraz irrati-telebistazko emankizunen oreka beharra kontutan izanik.

4garren Atala

1.– Lege honetako 2. eta 3. ataletako sortarauak eta Euskal Herrirako Autonomia-Estatutoaren 9.2. atalak herri-aginteei ezarritako eginkizunak egokiro betetzeko, honako hau ekar dezakeen ezein egitarau baztertzerako joko da:

a) Askatasunaren eta norbanakoen eta taldeen arteko berdintasunaren aurkako ekintza edo jokabideak goratzea edo aldezte.

b) Lege edo gizarte aldetik gaitzesgarri diren jokabideak alde onetik erakustea edo aldezte.

2.– Haurrentzako asmotako zabalkunde eta egitarauak "Bezeroen Estatutoa"-ri buruzko Legean jarritako baldintzak bete beharko dituzte.

3.– Norbaiten hitzak edo irudia bere barnekoitasun-eskubidea hautsi eta bere baimenik gabe jasotzea debekatuta gelditzen da, eta bai hartze horri datxezkon nolana hiko aztarrenak zabaltzea edo gordetzea ere. Halaber, legea hautsi dezaten gara-adinera gabekoen izenak agertaraztea ere debekatuta gelditzen da.

HIRUGARREN ATALBURUA

ERAKUNTZA ETA LEGEBILTZAR-ZAINGOA

LEHENENGO SAILA

5. atala

Euskal Irrati Telebista' Herri-Erakundearen organoak honako hauek dira:

- a) Administrazio-Batzordea
- b) Zuzendari nagusia

BIGARREN SAILA

ERAENTZA-BATZORDEAZ

6. atala

1.– Legebiltzarrak lege honek dioen eran izendatutako hemeretzi kidek osatzen dute Administrazio-Batzordea.

2.– Batzordekide-kargudunek ezin izango dute izan:

a) Zuzeneko edo zeharkako inolako lanbideloturarik baltzu pribatuekin, baldin eta baltzu horiek honako hauek badituzte ekintza nagusi edo osagarritzat: publizitatea ekoiztu edo banatu; zine-filmak ekoiztu eta banatu, laburmetraiak barne; magnetoskopioz filmatutako edo grabatutako programak ekoiztu; disko, magnetofono- zintak edo antzekoak ekoiztu; edo baldin eta baltzu horien jarduera honako hau bada: lege honetan araututako Herri-Erakundearen egitekoen esparru diren enpresa edo baltzuetan erabiltzen diren edo erabil daitezkeen ekipoa, materiala edo edozein eratako osagaiak ekoiztu, zuzkitu edo hornitu.

b) Jarduneango zerbitzu- edo lan-harremanik Herri-Erakundearekin edo bere baltzuekin.

7. atala

1.– Administrazio-Batzordeko hamabost kideren izendapena Legebiltzarreko taldeek Legebiltzarreko Mahaiaren aurrean aurkeztutako proposamenei jarraiki egingo da.

2.– Administrazio-Batzordeko lau kide segidan aipatutako erakunde eta elkarteek Legebiltzarreko Mahaiaren aurkeztutako proposamenean azaldutako pertsonen artetik izendatuko dira:

- a) Euskaltzaindia,
- b) Eusko Ikaskuntza,
- c) Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak,
- d) Euskal Herriko Unibertsitatea,
- e) Proposamena egiterakoan Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkari gehien duten sindikatuak,
- f) Euskal Autonomia Erkidegoko kontsumitzaile-elkarteen federazioak.

3.– Administrazio-Batzordeko kideen izendapenerako, emandako botoen bi herenen gehiengoa beharko da.

7 bis atala

1.– Administrazio-Batzordea bertako kideak izendatu eta hilabeteko epean eratuko da, kide guztiak beren tokiaz bilkura berean jabetzen direla.

2.– Administrazio-batzordekideek dagokien legegintzaldia bukatzeaz bat edo hautatu zituen organoak kargutik kentzen dituenen utziko dituzte beren karguak. Halere, jardunean jarraituko dute, kide berriak beren tokiaz jabetu arte. Kargutik kentzeko, izendapenerako bezalako gehiengoa beharko da.

3.– Administrazio-Batzordearen manuldian edozein arrazoirengatik gerta litezen balizko hutsuneak, 7. atalaren 3. idazatian ezarritakoaren gehiengoaren arabera, izendapena egiteko aurreikusitako sistemekin bat etorri beteko dira.

4.– Administrazio-batzordekideren bat kargutik kentzeari dagokionez, izendatu zuen organoak hori erabakitzeke ahalmena izango du, ondorengo kasuren bat gertatuz gero:

- a) Errenkako sei hilabetetik gora dirauen ezintasun fisiko edo eritasuna edukitzea.
- b) Gaitasun falta nabarmena izatea edo lege honetan jasotako irizpide, printzipio edo helburuen kontra jokatzeko.
- c) Engainuzko delituagatik kondenatua izatea.
- d) Izendatu zuen organoarekiko ordezkaritza galtzea.

8. atala

1.– Administrazio-Batzordea balio osoz bildu dadin, gutxienez bere eskubide osoko kideen erdiek eta bat gehiagok egon beharko dute bertan.

Batzordearen erabakiak, bertaratutako batzordekideen gehiengoz hartuko dira, atal honen 2. idazatiak aipatzen dituenetan salbu.

2.– Honako gai hauek Administrazio-Batzordeko kideen bi herenen gehiengoa beharko dute:

a) Zuzendari nagusiaren proposamenez, Herri- Erakundearen ekintza-plana ontzat ematea; plan horretan, gutxienez, emankizun-programaren oinarritzko printzipioak eta irizpideak jasoko dira xehetasunez, eta bai Herri-Erakundeko baltzu berezien ekintza-plana ere. Ekintza- plana lehenengo aldiz eztabaidatzeko bilkura hasi eta hilabeteko epean ez bada lortzen jarritako arauzko gehiengoa, batzordekideen erabateko gehiengoa aski izango da plan hori onartzeko.

b) Herri-Erakundearen eta bere baltzuen langile-zerrendak eta horien aldaketak behin betiko onartzea. Horretarako, dagokion adierazpen- txostena erantsiko da.

c) Talde-negoziatorako irizpide orokorrak ezartzea eta Herri-Erakunde eta bere baltzuen langileen lansari-arauak onartzea.

d) Herri-Erakundearen eta bere baltzuen aurrekontu-egitasmoa onartzea. Lehenengo bozketan idazati honen lehenengo zatian jarritako arauzko gehiengoa lortuko ez balitz, aurrekontu- egitasmoa Jaurlaritzari bidaliko zaio, legezko epearen barruan, administrazio-batzordekide bakoitzaren botoa zehaztuz.

e) Autonomia Erkidegoko gizartearen aniztasunarekiko eta elebitasunarekiko begirunez, politika-taldeentzako programazio-zatia sei hilabetez behin zehaztea eta gizarte-taldeentzako aztertzea.

f) Administrazio-Batzordearen funtzionamendu-araudia onartzea eta aldatzea.

9. atala

1.– Bestetik, honako hauek ere Administrazio-Batzordearen eskumen dira:

a) Lege honen bigarren atalburuan agindutakoaren arabera programazioa betetzen dela zaintzea.

b) Herri-Erakundearen ardurapeko baltzu eta enpresen zuzendarien izendapen-proposamenez jabetu, horiei buruzko irizpenak eman, jakin eta hilabetezko epean, eta zuzendarien toki-uztearen aurretiazko adierazpena jaso.

c) Herri-Erakundearen eta bere ardurapeko baltzu eta enpresen ekintzen garapenari buruzko urteko txostena onartzea.

d) Eusko Jaurlaritzak publizitatearen arloan eman asmo dituen xedapenenei buruzko irizpenak ematea.

e) Herri-Erakundeko baltzuen bidezko publizitate-iragarketa araupetzeko arauak jartzea, kalitatearen kontrola, publizitate-mezuen edukia, bai eta iragarketa-denbora programazioari eta bertan sartutako komunikabideen beharrei egokitzea ere, kontuan izanik.

f) Urteoro, adierazpide bakoitzaren emanaldietan sartu beharreko norbere irradagaien ehuneko zehaztea.

g) Herri-Erakundeko zuzendari nagusiak aurrera ekarritako gai guztiez jabetzea, bere ardurapekoak izan ez arren.

2.– Atal honetako aginpideak gauzatzeko bide diren erabakiak bertaratutakoen arteko gehiengo soilez hartuko dira.

10. atala

1.– Administrazio-Batzordeko burutza batzordekideen artean txandakakoa izango da. Hiru hilabete iraungo du eta batzordekide zaharrenak ekingo dio; gero, txandan adinez batzordeburuaren hurrengoa denak jarraituko dio, eta, irizpide berdinari atxikiz, hurrengo txandadunak.

2.– Legegintzaldiak dirauen bitartean batzordekideren baten ordezkoa jarri beharra gertatuz gero, ordezkoko horri, txandakako burutzarako, ordeztu duen batzordekidearen txanda egokituko zaio.

3.– Administrazio-Batzordeko burua, protokolo-egitekoez gain eta kide anitzeko organo baten burua den aldetik dagozkionez gain, ikuslearen babeslea izango da. Horiek horrela, herritarrek, Herri-Erakundearen eta bere baltzuen jarduera-esparruari dagokionez egindako kexak, iradokizunak eta proposamenak jaso, izapidetu eta erantzun beharko ditu, araudi bidez ezarritakoaren arabera.

11garren Atala

1.– Eraentza-Batzordeak, Herri-Erakundeko lanarien artetik boto-eskubiderik eta hizpiderik gabeko Bilkura-agiritarako Idazkari bat izendatuko du; horrek, bilkura bakoitzeko biltzar-agiria egin

beharko du, bilkura bakoitza bukatzean horren idazkera onartu, eta horretarakoxe agiri-liburuan erasota uzten dela.

2.– Idazkariak, Lehendakariaren oniritziarekin, hartutako erabakiekiko egiaztagiriak egin ahal izango ditu.

3.– Biltzar-agiriatarako Idazkariak bere gain izango du agiri-liburuaren zaingoa; hori beti Herri Erakundearen egoitzan egongo da, Eraentza-Batzordeko Lehendakariaren berarizko idatzizko baimenik gabe bertatik ezin atera daitekeela.

4.– Halaber, Biltzarragiri-Idazkariak Herri-Erakundearen ikurratza ere horren Egoitzan gordeko du; hori ezingo da Herri-Erakundearen agiri ofizialetan baizik erabili, Eraentza-Batzordeko Lehendakariak agindu dezan guztietan.

12garren Atala

Eraentza-Batzordeak hilean agizko bilkura bat egingo du, gutxienez, Herri-Erakundearen Egoitzan edo deian zehaztu dedin tokian, eta bereziak, hurrengo atalaren arauera beharrezko dedinoro.

13. atala

1.– Batzordeburuari dagokio Administrazio- Batzorderako deia idatziz egitea, bertan gai-zerrenda eta bilkurarako toki, egun eta ordua adieraziz.

2.– Batzordeburuak nahitaez egin beharko du Batzorderako deia, gutxienez bertako zortzi batzordekideek eskatuta. Eskabidean dei bereziaren xede diren puntu zehatzak ezarri beharko dira idatziz.

3.– Atal honen aurreko idazatietan oharmandakoa hala dela ere, batzordeburuak bere kabuz luzaezineko eta berebiziko garrantzizkotzat iritzitakoetan, bilkurarako deia telegramaz egin ahal izango du; mezuan, atal honen lehenengo idazatian oharmandako zehaztasunak eman beharko dira.

4.– Administrazio-Batzordeak ez du gai-zerrendan jasotako arazoez baino aritzerik izango, bertaratutakoen gehiengo soilez horrela erabakitzen bada. Nolanahi ere, gai horiei buruzko erabakiak onartzeko beharrezkoa izango da bilkuran diren kide guztien adostasuna.

14garren Atala

1.– Herri-Erakundeko artezkari Nagusiak Eraentza-Batzordearen bilkuretara joan ahal izango du, hitz egiteko eta botoa emateko eskubidez, baina berari artez dagozkion gaietan ezin eskuhartu dezakeela.

2.– Halaber, Batzordeak aholkua eskatzen dien teknikariak ere joan ahal izango dira, Batzordeak bertaratutako kideen gehiengo soilez erabakitako kasuetan.

LAUGARREN SAILA

ARTEZKARI NAGUSIA

16. atala

1.– Zuzendari nagusia Jaurlaritzak proposatu eta Legebiltzarrak hautatuko du, eta proposamena onartzeko, legebiltzarkideen erdien gehi bat gehiagoren aldeko botoak beharko dira, gutxienez. Behin hautaketa eginik, lehendakariaren dekretu bidez izendatuko da zuzendari nagusia.

2.– Honako hauek izango dira zuzendari nagusiaren egitekoak:

a) Lege honek, lege hau osatzeko arau-bidezko manuek, eta, hala egokituz gero, oinarritzko edo osatzebidezko legegide direnez erabilgarri eta nahitaez bete beharreko izan daitezenez, agintzen dutena betetzea eta betearaztea.

b) Arduralaritza Batzordeak bere agintepeko gaietan har ditzan erabakiak betetzea eta betearaztea.

c) Arduralaritza Batzordeari, onar dezan, herri-erakundearen ekintzapide-egitamuak aurkeztea, eta baita haren menpeko baltzu eta enpresenak eta esandako ekintzapide-egitamu horien egiterapenari buruzko urteko txostena ere.

d) Diruegitamuen aintzin-egitasmoa batzordeari onar dezan aurkeztu, lan-sariak eta aurreko zatian esandako egitamuak egiteratzeko ohartemandako gastu eta diru-eskuraketak barne daramatzala, esandako batzorde horrek emankizun-egitarauari buruz ontzat emandako oinarri-iritziak eta orotariko bideak kontutan izanik etahorrezazko zehaztapen-txostenarekin batean, hori guztiori bai herri-erakundeari berari bai horren menpeko baltzuei dagokiela.

e) Akurapen-sail gisa ihardun eta herri-erakundearen eta bere baltzuen ordainketa eta gastuetarako baimena eman.

f) Arduralaritza Batzordeari herri-erakundearen eta bere baltzuen ihardute-egitura aurkeztea, onar dezan, eta bai herri-erakundeko eta bere baltzuetako artezkaritzakoak lanbide-gaitasunari begira izendatzea ere, izendapen horiek aurrez Arduralaritza Batzordeari ezagutaraziz.

g) Herri-erakundearen eta bere baltzuen iharduna berma dezaten nolana hiko zerbitzuak eratztea, bideratzea, indartzea, antolakidetzea eta arakatzea, horretarako beharrezko eta aski izan daitezenez arau eta oharpideak eman ditzakeela, hori guztiori Arduralaritza Batzordeari dagozkion eskubideen kaltetan gabe.

3.– Irratsaioak bi hizkuntzetan egingo direla kontuan izanik, Autonomi Elkartearen ofizial diren bi hizkuntzez aski jabetuta egoteari balioa emango zaio.

17garren Atala

Artezkari Nagusiaren manu-aldiak lau urte iraungo du eta, nolana ere, Eusko Legebiltzarraren Legegintza-aldia bukatuaz bat amaituko da. Hori gertatuz gero Artezkari Nagusia izendatu arte bere karguan jarraituko du.

18garren Atala

Artezkari Nagusia Eusko Legebiltzarkide izatearekin batera ezinekoa izango da, Arduralaritza-Batzordekoentzat jarritako elkartuezin guztiek ere hartzen dutela.

19. atala

1.– Eusko Jaurlaritzari dagokio zuzendari nagusiaren kargu-uztea proposatzea, horretarako arrazoiak adieraziz. Behin kargu-uztea Eusko Legebiltzarreko legebiltzarkideen erdiek gehi bat gehiagok onarturik, Eusko Jaurlaritzak kargu-uzteari buruzko dekretua onartuko du.

2.– Administrazio Kontseiluak ahalmena izango du, bi hereneko gehiengoarekin, zuzendari nagusiaren kargu-uztea proposatzeko, ondorengo kasuren bat gertatuz gero:

a) Kargua betetzeko bateraezintasunen batean erortzea.

- b) Errenkako sei hilabetetik gora dirauen ezintasun fisiko edo eritasuna edukitzea.
- c) Gaitasun falta nabarmena izatea edo lege honetan jasotako irizpide, printzipio edo helburuen kontra jokatzeari.
- d) Engainuzko delituagatik kondenatua izatea.

BOSGARREN SAILA

ZAINGOZKO LEGEBILTZAR-BATORDEAZ

20garren Atala

Eusko Legebiltzarrak erabaki dezanaren arauera, Legebiltzar-Batzorde batek "Euskal Irrati-Telebista" Erakundearen Herri-Baltzuen ekintzaren zaingoa egingo du, haien iharduera galerazi ez dezaneko moduan.

LAUGARREN ATALBURUA

IRRAPIDE ETA ZUZENKETA-ESKUBIDEAK

21garren Atala

1.– Gizarte eta politika-talde ordezkagarriek, Lege honen xede diren herri-adierazpideak erabiltzeko eskubidea izango dute. Eskubide hau egiteratzeko, Arduratze-Batzordeak, Artezkari Nagusiarekin bat eta dagozkion aginteak egiteratuz, erizpide soilak ezarriko ditu, hori erabakitzeko, aipatutako taldeek bateango Erakundeetan, Kondaira-Lurraldeetan eta Elkarte Autonomiaduneko Udaletxeetan daukaten ordezkotza, eta beharrezko jo ditzan sindikaritzak edo ugazaba-ordezko-tzako, edo gizarte eta kultura-interesezko beste ezein erizpide kontutan izanik.

2.– Irrapide-eskubidea indar gutxiagoko politika, gizarte eta kultura-taldeentzako ere bermatuko da.

22garren Atala

1.– Legebiltzar-eztabaidaketen geroagoko zabalkundean, edo hoiei buruzko albisteetan eta hauteskundeetako zabalkunde-ekintzetan, Legebiltzar-Talde bakoitzarentzeko irrati-aldia Eusko Legebiltzarrean diren ordezkari-kopuruaren heinekoa izango da.

2.– Hauteskunde-ekintzetan zehar hauteskunde- arauak aurreikusten duten jaurpide berezia ezarriko da. Jaurpide horren ezarketaz eta kontrolaz Hauteskunde-Batzordea arduratuko da, bere eginkizuna Administrazio-Batzordearen eta zuzendari nagusiaren bitartez beteko duelarik. Izan ere, horiek Hauteskunde-Batzordeak ezarritako irizpideak betetzeko beharrezkoak diren erabakiak hartuko dituzte.

23garren Atala

Eusko Jaurlaritzak, aldian-aldian, gizarte-adierazpideak herri-zerbitzu izateari darian irradaketak zehaztu ahal izango ditu, eta Arduratze-Batzordeari bere iritzia eskatu ondoren hoiek betearazi.

24garren Atala

Eusko Jaurlaritzak, beharrezko eritzitako herri-zuduzko nahi hainbat agintaritzaren adierazpen edo mezu irratsaiotan sartu eta emanarazi ahal izango ditu, hoiien nondikakoa esanaz. Jaurlaritzari neurtzea dagokion presa dagoenean, adierazpen eta mezu hoiiek berehala zabalduko dira.

25garren Atala

Irrapideetako Artezkariek, Arduralaritzak Herri-Erakundeko Artezkariaren bidez bere agintepide edo egiteko direnei buruz emandako albisteak zuzenduz edo argituz bidali diezazkien ohar eta adierazpen guztiak hartutako egunaren biharamonean eman beharko dituzte. Zuzenketa, bere zio den albistea eman zeneko albiste-irratsaioaren ordu berekoan egin beharko da.

BOSGARREN ATALBURUA

ERANTZUTEKO ESKUBIDEAZ

26garren Atala

Irratiz eta telebistaz zabaldutako edozein berrigatik bidegabekeriaz kalte egin zaiola uste dezan ezin norbanako edo lege-nortasundunek, berez edo egokiro legezaturiko bere ordezkarien bitartez erantzuteko eskubideaz baliatu ahal izango du.

Halaber, herri-zuduei kalte egingo aliatzaie, hauek aldezteko legezko gaitasuna izan dezan beste edozein Erakundek baliatu ahal izango du eskubide honetaz.

27garren Atala

1.– Erantzuteko eskubidea egiteratzeari gagozkiola, literatura, arte, zientzia edo horrelako lanen egile izan eta jendaurreko agerraldiak lanbidez egin ditzatenak ezingo dira irizlariek lan edo agerraldi hoiei buruz azalduko aburuek bidegabekeriaz kalte egindakotzat jo, bere lan edo agerraldiekiko irizlarierizpenak baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Doakien jendaurreko lanaren artean edo zientziaren aldetikako balioari buruzkoatara mugatzea, eta

b) Lege honetan aitortzen diren erizpide eta eskubideekiko begirunez eginda egotea.

2.– Gaudeneko adierazpen-askatasunezko giroan, nolanhiko herri-ihardunean dabilzan edo ibili direnak ere ezingo dira bidegabekeriaz kaltetan ateratakotzat jo esana edo aipamena ihardun horri buruzkoa izan eta lege honetan aitortzen diren irizpide eta eskubideekiko begirunez egindakoa denean.

28garren Atala

Erantzuna argipenaren edo zuzenketaren gaiari baino ez datxekona da, eta horren zabalkundea dohain egingo da.

29garren Atala

Erantzuna emateko eskea, hala behar izanez gero oinarri dituen agiripaperak aldean daramatzala, horren zabalkundea egin behar deneko Adierazpideko Artezkari bidaliko zaio.

Erantzunaren gai den berria edo iritzia egunoroko albiste-aldi baten zabaldu baldin bada, erantzun hori Adierazpideko artezkariak hartu dezan egunaren biharamonean zabaldu beharko da, eta bestetan berriz hurrengo zazpi egunen barruan.

30garren Atala

1.– Albiste edo iritzia eman zeneko albiste-aldia arauzko aldizkakoa baldin bada, erantzun hura zabaldu zeneko albiste-aldi berean sartu beharko da; bestelakotan, esana edo aipamena egin zeneko saio haren izakera berbereko baten aurretik egingo da.

2.– Lehen esandakoaren kaltetan gabe, erantzunaren zio izandako iritzia edo berria albiste-emaitezko ez den irratsaio baten eman bada, eta iritziaik telebista edo irratia lanbide dutenengandikakoak ez badira beti, doakionak erantzunak izakera bereko irratsaio baten irakurri dedila eskatu ahal izango du. Beti ere, Albistepideko Artezkariaren edo Arduratze-Batzordearen erabakia Albistepidearen izakerari eta saio-egitarauaren beharrei egokituko zaie.

31garren Atala

Erantzuteko eskubidea, albistea edo iritzia zabaldutako egunetik hasi eta honako epe hauen barruan egiten ez bada galdu egindo da:

- 1.– Irratsaioak bertaraino iristen direnoko herritan bizi direnak badira, zazpi egutegi-egun.
- 2.– Erresumako izaroez besteko lurraldetan bizi direnak badira hamabost egutegi-egun.
- 3.– Erresumako izaroetan edo atzerrian bizi direnak badira, hogeita hamar egutegi-egun.

32garren Atala

1.– Dagokion Albistepideko artezkariak erantzuteko eskubidea ukatzearen aurka Arduratze-Batzordearen aurrera jo ahal izango da; horrek gehieneko hiru eguneko epearen barruan erabaki beharko du, horrekin ardularitza-bidea aituz. Ukoak adierazi egin beharko dira.

2.– Arduratze-Batzordearen aurrera jo ahal izateko epea, ukoaren adierazpena egindako egunaren biharamonetik hasita, kontatuko da eta, nolana ere, 31garren Atalean esandako epeak bukatzerakoan.

3.– Arduratze Batzordearen erabakia erantzuna sartzearen aldekoa bada, erantzun hori 31garren Atalean jarritako irizpideen arauera zabaldu beharko da.

4.– Arduratze-batzordearen ezezko erabakiaren aurka ardularitza-auzipideetatikako goradeia egin ahal izango da.

33garren Atala

Ukoa zio eta guztizkoa izango da, eta honako arrazoi huek baino ezingo ditu oinarri izan:

- a) Eskea edo idatzia bere zio izandako aipamenak edo esanak zehaztera ez mugatzea.
- b) Erantzunaren edukiak indarrean dagoen legerapidetzak ezartzen dituen mugak haustea.
- c) Erantzuteko eskubideaz baliatzeko modua argi eta garbi ezegokia izatea.
- d) Lege honen 27. Atalak dionaren arauera horretarako legegaitasuna dutenek albiste edo iritzia alderdi berei iadanik erantzun izana.

e) Albistepideak albistea edo iritzia eskatzen den moduantxe edo halatsu iadanik borondatez argitu izana.

f) 28. Atalak aipatzen duen egoeraren bat gertatzea.

34garren Atala

Eskubide honen egitarapena, agian egindako kalteari legozkiokeen zigorlege edo herrilegeen alorretan egin daitezkeen bideetatik bestekoa da.

SEIGARREN ATALBURUA

ERAENTZA-MODUAK

LEHENENGO SAILA

HERRI-ERAENTZA

35garren Atala

1.– Euskal Irrati-Telebistaren herri-zerbitzuen eraentzak lege honetan agindutakoak izango ditu jaurpide, eta jarri daitezen agizko zerbitzuak eratzikitzen zaizkiola egingo da.

2.– Herri-Erakundeak har ditzan erabakiez eta hoiei darizkien eskubideez, bakoitzean dagozkiokeen aginte-saila arduratuko da, aurrez jaurtze-agintaritzatikako zuzenketa-eskea egin beharrik gabe.

36garren Atala

1.– Herri-Erakundearen ihardutze-egiturari eta horren aldaketei buruz Arduratze-Batzordeak bere erizpena arauz eman beharko du, eta horren erabakiak Artekari Nagusiarentzat behartze-indarra izango du.

2.– Ezingo da behar denez onartutako ihardutze-egituran ez dauden lantokientzako artezkarriz lanaririk izendatu.

BIGARREN SAILA

MERKATARITZA-ERAENTZA

37garren Atala

Telebistazko herri-zerbitzuen eraentza horretarako sortarazi daitezen Herri-Baltzuen bitartez egingo da.

38garren Atala

Aurreko atalak dion Baltzuen baltzu-domua oso-osorik Autonomia-Elkarteak hartuko du, erabat Herri-Erakundearena izango da, eta ezingo da ez ordain-truke ez dohan saldu, bahituran eman, zorpetu, gaudimen gisa utzi edo inori utzi.

39garren Atala

Herri-Erakundeak nornabako-jabetzapeko irratetxeak beretzakotu ahal izatea uhin-sarrita-sunezko eta irrada-indarrekiko ardulararitza-baimenaren jabetzarekiko ordezkotza hartzearen baldintzapean egongo da.

40. atala

1.– Erakundea sortu ondoren, herri-baltzuetako zuzendariak Herri-Erakundeko zuzendari nagusiak izendatuko ditu, lege honen 9.1 b) atalean zehaztutakoa betez.

2.– Herri-baltzuetako zuzendariak edo, hala badagokio, Herri-Erakundeko zuzendari nagusia izango dituzte beren arduralari bakar, eta akziokako baltzuentzat orotariko legeetan jarritako ahalmenak izango dituzte eta lege horietan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

3.– Herri-baltzuetako eta horiei jarduteegituraz atxikitako komunikabideen zuzendaria Herri-Erakundearen zuzendari nagusiarentzat aurreikusitako elkartuezin beren menpe egongo da.

41garren Atala

1.– Jaurlaritzak Artezkari Nagusiaren saloz, eta Arduratze-Batzordearekin elkar hartuta, menpe-baltzuak sortarazi ahal izango ditu, eraentza eginkorrago baterako bide.

2.– Sortarazi daitezten menpe-baltzuak, beti ere, herri-domuzkoak izango dira, eta aurreko ataletan esandako lege-jaurpideen menpeko.

ZAZPIGARREN ATALBURUA

DIRUEGITAMUAK ETA DIRUBIDEAK

42garren Atala

"Euskal Irrati-Telebista" Erakundearen diruegitamua Lege honi eta Autonomia-Elkartearen Diruegitamuen orotariko Legeari atxikiko zaio.

43garren Atala

Herri-Baltzu bakoitzak bere diruegitamu berezia izango du eta hoiek, Autonomia-Elkartearen orotariko Diruegitamuei eratzikita, Legebiltzarrak ontzat eman beharko ditu.

Lege honen 42garren Atalaren babespean sortarazi daitezten menpe-baltzuek lege-jaurpide hori bera izango dute.

Diruegitamuak, oreka-irizpidearen arauera egingo eta erabiliko dira.

44garren Atala

"Euskal Irrati-Telebista" Erakundearen eta eraentza eta menpebazkunen diruegitamuen kalte-tan gabe, diruegitamu finko bat egingo da, agiango edo behin-betiko mentsei ihes egin eta hoiek diruegitamu finko horretan sartutako erakundearen irabazien bidez estali ahal izateko.

45garren Atala

"Euskal Irrati-Telebista" Erakundearen eta horren zerbitzuen eraentzarako herri-baltzuen dirubideak Euskal Herriko Autonomia Elkartearen Orotariko Diruegitamuen pentzutuan egingo dira, eta egiteratu ditzaten ihardunetatikako diru-eskuraketa eta irabaziez baliatuz.

46garren Atala

1.– "Euskal Irrati-Telebista" Erakundearen ondarea eta eraentzarako herri-baltzuenak, guztitarako Euskal Autonomia-Elkartearen ondarean sartuta geldituko dira, eta herri-zerbitzurako jarritako herrijabetzapeko ogasuntzat joko da. Ezein zerga edo laketatik iare egongo da.

2.– Euskal Irrati-Telebista erakunde publikoaren ondareak, Euskadiko ondarean txertatuta egonik, lege honetan ezarritakoak eta Euskadiko ondarea arautzeko legeetan xedatutakoak izango ditu jarraibide, honako zehaztasun hauek ere aintzakotzat hartuta:

a) Nolanahi den ere, Euskal Irrati-Telebista erakunde publikoari dagozkio erakundeak berak sortutako edo erositako ondasun higigarriak, jabetza gorpuzgabeak eta enpresa-ondarea erosteko, kudeatzeko, administratzeko, ustiatzeko eta besterentzeko titulartasuna eta eskumenak.

b) Erakundeak zuzenbide pribatuaren arabera ustiatu, laga edo errentan jarri ahal izango ditu programak ekoizteko instalazioak, haiei lotutako ondasun higigarriak eta haietatik sortutako programak eta bestelako ekoizpenak.

c) Gobernu Kontseiluak dekretu bidez ezarri ahal izango ditu prozedurak zehazteko eta eskumenak erakundeko organoei esleitzeko arauak, zuzenbide pribatuari lotutako prozedura-jardunak gauzatzeko, era horretara publizitatea, gardentasuna, lehia, objektibotasuna eta kudeaketaren errentagarritasuna bermatuta gera daitezen.

ZORTZIGARREN ATALBURUA

47. atala

1.– Herri-Erakundeko eta bere baltzuetako langileek lan-legeek agintzen dutena izango dute jaurpide.

2.– Herri-Erakunderako eta bere baltzuetarako langileen hautaketa deialdi publikoaren bidez eta merezimendu eta gaitasunaren printzipioetan oinarritutako sistemen arabera egingo da.

3.– Administrazio-Batzordekide izateak ez du, inoiz ere, Herri-Erakundearekiko eta bere baltzuekiko lan-eskubiderik sortaraziko.

48garren Atala

1.– Artekari, Antolatzaile, langile, egiteratzaile, aurkeztaile edo horrelako gisa jendaurrerako emankizunetan ari daitezen Herri-Erakundeko lanariak 41. atalak esaten dituen elkartuezinen menpe egongo dira, eta ezingo dute jendearentzako tokitan hoietan edo hoiien antzerakotan ihardun. Noizbehinkako emankizun-aurkezpenak edo jendaurreango agerpenak elkartuezin horretatik kanpo gelditzen dira.

2.– Erosketa edo akurapen-zerbitzuetako edo zerbitzu horren eraentza hobetzeko sortarazi daitezkeen Baltzuetako teknikariak ere 41. atalak jartzen dituen elkartuezinen menpe egongo dira.

3.– Herri-Erakundearen edo bere Baltzuen lanari-erroldean behin betirako sartzea, ordu berean beste inorentzako lansaripeko beste ezein ekintzaren egiterapenarekin elkartuezina izango da.

LEHENENGO ERABAKI GEHIGARRIA

"Radio Vitoria, S.A. " Herri Baltzua "Euskal Irrati-Telebista" Herri-Erakundearen barruan sartzen da.

BIGARREN ERABAKI GEHIGARRIA

Lege hau araupidez egiteratzeko ahalmena ematen zaio Jaurlaritzari, indarrean jartzen denetik sei hilabete baino goragoko izan ez dadin epe batetan.

AZKEN ERABAKIA

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.